

# Literatura eta kazetaritza hizpide, 14. Literatur Topaketan


2013/10/08

Literatura eta kazetaritza -eta kazetaritzak dakarren presa- izango dira aurtengo Literatur Topaketetak jorratuko dituen gaiak. Horretarako, bi esparru horiek batuko duen izenburua proposatu dute Humanitate eta Hezkuntza Zientziako Fakultateko antolatzaileek: "**Pre(nt)sa (z)ko literatuta**".

Urriaren 22an eta 24an egingo diren jardunaldien xedea da aztertzea, lau adituen hitzak baliatuta, nola ezkontzen diren kazetaritza eta literatura, eta hausnartzea ea posible den uztartzea idazteko eta irakurtzeko plazerra, kazetaritzak eskatzen duen presa eta azkartasunarekin.

Literatur Topaketan 14. edizio honek ekarriko ditu, gainera, berrikuntzak. Batetik, lehenengoz, HUHEZik dituen bi campusetan egingo dira hitzaldiak, hain zuzen ere, Aretxabaletako eta Eskoriatzako campusetan. Bestetik, bi egunetara ekarriko da egitaraua: lehenengo egunean, urriaren 22an, Aretxabaletan, goizez izango dira hitzaldiak, eta, aldiz, bigarren egunean, urriaren, 24an, Eskoriatzan, arratsaldez.

Literatur Topaketak edonorentzat daude irekita eta, sarrera doakoa da. Aurtengo kartela osorik ikusteko: [Literatura Topaketak 2013ko kartela](#).



## Egitaraua

### Urriak 22, asteartea, Aretxabaletako campusean

**10:15.** Agurra eta aurkezpena.

**10:30.** [Xabier Gantzarain](#). Idazlea. Bloglaria. Zutabegilea. Sortzailea. Bera izatea zaila izan denean ere, bera izaten dakien idazlea.

**12:00.** [Anjel Lertxundi](#). Idazlea. Zutabegilea. Gidoilaria. Egunero idazten badu ere, patxada iradokitzen duen idazlea.

### Urriak 24, osteguna, Eskoriatzako campusean

**15:00.** [Lorea Agirre](#). Kazetaria. Zutabegilea. Euskal kulturaren urgentziaz hausnartu duen kazetaria.

**16:00.** [Lander Garro](#). Idazlea. Sortzailea. Bloglaria. Twitterlaria. Gidoilaria. Argazkilaria. 140 karakteretan poeta um fingidor ez dela erakutsi duen idazlea.

## Historia

Aurreko ediziotan, makina bat gai jorratu izan dira Literatur Topaketan, esaterako:

**2012** [Haur literatura, helduentzako literatura -- \(MUtelebistaren bideo informatiboa\)](#)

**2010** [AEBetako Mendebaldean sortutako euskal literatura -- \(MUtelebistaren bideo informatiboa\)](#).

**2009** [Idazle sekretuak](#).

**2008** [PlayStation belaunaldia](#).

**2007** [Literatura, itzulpengintza eta ikuskizuna](#).

**2006** [Zazpi bekatu nagusiak](#).

**2005** [Literatura eta bidaiak](#).

**2004** Literatura eta filosofia.

**2003** Literatura eta erotismoa.

**2002** Literatura eta umorea.